

A2.1 MAILA

Matxinada tren batean

Irakurri albistea, eta, ulertu ondoren, adierazi egia ala gezurra diren hurrengo baieztapenak.

Matxinada tren batean, begiratzaileak jarrera xenofoboa izan duelako.

Gaur goizean, ehun persona inguru **matxinatu** dira Girona-Figueres trenean, begiratzaileak jarrera xenofoboa izan duelako gizon beltz batekin. Izan ere, txartela gizon horri bakarrik eskatu dio.

Orduan, bidaiariak txistuka hasi dira, eta **babestu** egin dute gizon beltza.

Ivan Ramos izena du gizonak, eta pediatra da Figueresko osasun-etxean. Ramos jaunak ez dio txartela erakutsi begiratzaileari, trenak 20 minutuko **atzerapena** zuela **salatzeko**.

Bidaiariaren ezetzaren aurrean, begiratzaileak zazpi minutuz gelditu du trenea, poliziaren zain. Azkenean, mossoak Figuereseko geltokira joan dira, eta, Ivan Ramosen txartela ikusi dutenean, alde egin dute.

Ivanek salatu du horrelakoak sarritan gertatu zaizkiola, “ askotan hegoamerrikarrak eta arabiarak ezberdin tratatzen dituztelako, Europako zuriekin konparatuta”.

Edonola ere, eskertu egin du treneko bidaiarien jarrera, babes handia izan duelako. Gainerako bidaiariak ez ziren trenetik irten Ivan aske utzi zuten arte.

Matxinada: Rebelión

Matxinatu: Rebelarse

Babestu: proteger

Atzerapena: retraso

Salatu: denunciar

IRAKURMENAREN ULERMENA

Testua irakurri ondoren, adierazi egia ala gezurra diren hurrengo baieztapenak

1. Ehun persona inguru matxinatu dira Girona-Figuères trenean
 - A. Egia
 - B. Gezurra

2. Begiratzaileak jarrera xenofoboa izan du
 - A. Egia
 - B. Gezurra

3. Begiratzaileak jarrera xenofoboa izan du arabiar batekin
 - A. Egia
 - B. Gezurra

4. Txartela gizon horri bakarrik eskatu dio
 - A. Egia
 - B. Gezurra

5. Begiratzailearen jarrera ikustean, bidaiariak txistuka hasi dira
 - A. Egia
 - B. Gezurra

6. Gizon beltz hori pediatria da
 - A. Egia
 - B. Gezurra

7. Ivan Ramos jaunak Gironan egiten du kan

- A. Egia
- B. Gezurra

8. Ramos jaunak ez dio txartela erakutsi begiratzaileari, trenak 50 minutuko atzerapena zuela salatzeko

- A. Egia
- B. Gezurra

ERANTZUNAK

1. Egia

2. Egia

3. Gezurra

4. Egia

5. Egia

6. Egia

7. Gezurra

8. Gezurra